

2025.05.19

18. Garapen Jasangarriko Helburuaren behin betiko proposamena.

18. Helburua: titulua zehazteke

- 18.1. Hizkuntza eta kultura guztiak munduko ondare immaterial komunaren parte direla aitortzea, eta hala, horiek guztiak zaintzea, babestea eta transmititzea.
- 18.2. Pertsona ororen hizkuntza- eta kultura-eskubideak bermatzea, baita norberaren hizkuntza eta kultura eskuratzeko aukera ere.
- 18.3. Kulturen adierazpen-askatasuna bermatzea, pertsonen eta gizartearen askatasuna ziurtatzeko.
- 18.4. Hizkuntzak eta kulturak pertsonen eta komunitateen osasunean eta garapenean egiten duten ekarpena bultzatu eta komunitateak ahalduntzea.
- 18.5. Kulturen eta hizkuntzen bitartez pertsonen inklusioa, gizarteratzea eta parte-hartzea bultzatzea, haiek kohesio eta garapen sozialerako duten balioa transmitituz.
- 18.6. Migrazio-fluxuek sortzen duten hizkuntza eta kultura aniztasunaren kudeaketa eraginkorra sustatzea, kulturartekotasunean oinarritutako neurriak hartuta.
- 18.7. Hizkuntza- eta kultura-politiketan, sorkuntzan eta transmisioan genero-ikuspuntua kontuan izatea.
- 18.8. Egoera gutxituan dauden tokian tokiko hizkuntzak, hezkuntza-sisteman integratzea, bertako hizkuntza-ondarea transmititzeko eta belaunaldi berriek, horietan bizi ahal izateko aukera izan dezaten bermatzeko.
- 18.9. Kulturak herritarren sormen-gaitasun eta sen kritikoaren garapenean duen egitekoa balioan jartzea eta hezkuntza-ereduetan aplikatzea.
- 18.10. Kulturen arloko lan-ibilbide duina bermatzea, maila guztietan, hezkuntzan, lan-jardunean eta kultura-sektorearen aitortzan.
- 18.11 Lan-arloan egoera gutxituan dauden tokian tokiko hizkuntzen erabilera sustatzeko baliabideak eskaintzea.
- 18.12. Komunikabideetan, arlo digitalean eta teknologia sortzaile berrietan, egoera gutxituan dauden tokian tokiko hizkuntzen presentzia eta erabilera ziurtatzea.
- 18.13. Nazioarteko lankidetzan tokian tokiko hizkuntzek eta kultura-gaiek egiten duten ekarpenari balioa ematea, bereziki garapen-bidean edo gatazkan dauden herrialdeetako lankidetzan egindakoari.
- 18.14. Hizkuntza gutxituak dituzten herrialdeen eta komunitateen arteko lankidetzaren sareak sustatzea hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren eskubidea bermatzeko.

Harremanetarako: info@maraka.co